

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Andoain eta Urnieta, inauterietarako prest

Larunbata izango da egun handia bi herrietan, eta hitzordu gehiago deituta daude. / 8-11

Auzotarrekin bilduta

Andoaingo Udalak "Andoain Elkarlanean" egitasmoa aurkeztu du, bilera ezberdinetan / 6-7

Urnietako Goiburun dagoen Ormazarreta baserriko Ramon Belauntzarani elkarrizketa / 12-13

Denboraldia abiatu duen Euskadi taldeko Mikel Alonso txirrindulariari elkarrizketa / 14-15

MOZORROA JANTZI

eta atera zaituz kalera

*Gora inauteriak!
Gora Andoain!*

ANDOAINGO UDALA

Xabier Lasa URNIETA

Ramon Belauntzaran Egia Ormatzarreta baserrian jaio zen 1956an, eta bertan bizi izan da geroztik, Goiburu auzoan. Herri kirolean sutsu ibilitakoa da gaztetan jendurreko lehiaketetan. Baina kirolen eta desafioen gainetik, pistolen tiroak gertu sentitzen dituela lasterka bizian egitea zer den badakiela esan dezake. Iazko irailean jubilazioa hartu zuen, eta denbora hartu du 1986ko pasadizo hura gogorarazteko.

Erretiroa hartu berri duzu Arizmendiko mintegian...

Iazko abuztu-irailean egun nuen azken lan eguna, ia berrogei urtetan bertan jardun eta gero. Azken aldian lau langile aritu gara, eta hiru geratuko dira ni aterata. Gogoratzen naiz lau lagun batera nola sartu ginen 1980an. Hemezortzi laguneko plantilla ezagutu zuen Arizmendik garau hartan.

Zer egiten da zehazki, Arizmendiko Mintegian?

Mendiko eta jardineko landarea hazten da: pagoa, lizarra, intzusa, gorostia, lizarra, altza, haritza... Egun, Aldundiaren beharretarako aritzen da Arizmendi, batez ere, lur publikoetan landatu behar duenari erantzuteko. Beste zenbait eskari ere heltzen dira Arizmendira: esate baterako, zuhaitz egunetan udaletxeek landatzeko behar izaten dituzten landareak.

ekoizpena handiagoa zen iraganean. Bezeroak arlo publikotik ez ezik pribatutik ere etortzen baitziren. Getariko txakolindegietan, esate baterako, Arizmendin hazitako makina bat landare landatu izan da.

Baserrira lotuta bizi zara. Denbora zertan igarora izango duzu orain...

Ehiza zen nire afizio handienetakoa; usoetan, basurdeetan eta oliagorretan ere aritu izan naiz, baina basurdeetarako bakarrik animatzen naiz oraintxe, auzoko kuadrillarekin. Baserrian ari naiz bete-betean, eta aspertzeko denborarik ez daukat. Beti baitago zeregina! Oilasko batzuk hazi, artaldea gobernatu, baratzan aritu... Hori bai, ahaztu ziren haragitarako eduki genituen larreko ganadua eta esnetarako behiak ere!

Gaztetan poliziarekin pasadizo larria bizi izan zenuen, bizia bera arriskutan ikusi zenuen orduan...

Ez da gezurra! 1986ko martxoaren 19an izan zen, San Jose egunean.



Ramon Belauntzaranek erretiroa hartu zuen, duela gutxi. Arizmendi hazitegian lan egin du, ia berrogei urtez. AIURRI

Belauntzaran urnietarra, bizitza osoa Goiburura lotuta

RAMON BELAUNTZARAN EGIA ORMAZARRETAN JAIO ETA BIZI DEN URNIETARRA

Kirol mailan bizi izandako une gozoak eta iraganean bizi izandako gertaera gazia hizpide izan ditu elkarrizketan. Goiburun sortu eta bizi den urnietarra da

Arizmenditik 17:30ak aldera atera eta etxera etorri nintzen oinez; kilometro bateko distantzia dago handik baserrira. Etxean, aitak aipatu zidan udalak bilera anto-

latu zuela auzotarrekin ilunabarretarako, bidea berritzeko asmoa zeukatela-eta, eta hara joateko. Horrela, Martiarena alkatearekin Urnietan bilera egin eta gero,

itzuleran, Latzeko Xebastian eta biok Ergoien zerbait hartzeko geratu ginen. Batzuk kartetan geratu ziren bertan, baina nik, 24:00ak aldera etxera erretiratzea

erabaki nuen. Bidean, Azkonobietako baserri pare horretan, Chrysler zuri bat nire aurrean geratu, eta bost lagun irten ziren bertatik zalapartaka. “Alto policia” esaka! Kaleko arropaz jantzita zihoazen. Bi lagunek besotik heldu zidaten, eta ahal nuen bezala jota libratu egin nintzen. Segituan, aterkia, eta harekin diruak eta karnetak zeuzkan kartera harrika bota egin nituen; haiek distraitzea lortu nuen, eta horrekin batera, burua bide baztertera bota eta korrika aldegin nuen goitik behera, Andoain aldera ateratzen den bidexkan barrena. Atzetik, aditu nituen haien marruak, eta baita ere, danba, danba, danba! hiru tiro nola bota zizkidaten. Akabo ni-reak! pentsatu nuen nire artean, baina iheska segi nuen. Eta Urbanetara atera nintzen.

Bien bitartean, haiek Urnietako udaltzainengana joan ziren, nire karneta eskuetan zutela. Mikel Unanue udalatzaina topatu zuten han, eta honek esan zien harritzen zela nirekin, ez zuela pentsatzen nik ezer txarrik egin nuenik. Kontua da, hura hartu eta baserrira abiatu zirela. Kaleko arropaz jantzitako guardia zibilak ziren, gero jakingo genuenez. Dinbi eta danba atea bota, eta etxeko denak esnarazi zituzten.

Eta zu nondik zenbiltzan, hori gertatu zen uanean?

Ergoien era iritsi nintzen. Bertakoekin lasaitzen saiatu nintzen; “Hori al da pertsona tratatzeko modua?” esaten nien. Gorputzean urratuak eta odol isuria neuzkan, larre artean zilipurdika ibili izanagatik. Gainera sorbaldan egundoko oinazea sentitzen nuen. Halako batean, Latzeko Xebastianek lagunduko zidala etxera itzultzen. Horrela, etxera ailegatu, eta zera, autoz eta paisanoz josita baserri guztia! Sukaldean gogor hartu ninduten. Makina bat paper zabaldu mahai batean, eta galderak galderen atzetik; tarteka, ez dakit zer lege eta artikulua irakurtzen zizkidaten. Nik tutik entenditzen ez, eta dardarka, zutik egon ezinik! Gero, esaten zidaten muga ez dakit zenbat alditan pasatakoa nintzela, baina dena gezurra zen! Rosario Pikabea eta beste zenbait, garaitsu hartan ihes eginda zeuden, eta harekin lotzen ninduten. Kontua da ni Rosariorekin aizkora apustuetan ibilitakoa nintzela, ez besterik.



Ramon Belauntzaran Ormazarreta baserrian jaio eta bizi izan da beti. AIURRI

Intxaurrondora preso eramateko mehatxua ere egin zidaten, baina halako batean, alde egin zuten, bakean utzi gintuzten! **Astebete lehenago, ETAK Jose Maria Egaña, Buruntza auzoan kokatzen den Krafft lantegiko lehendakaria bahitu zuen. Haren peskisan ibiliko ote ziren?**

Nik ba al dakit ba? Urte batzuk atzerago, BVE bailara guzti horretan ibilia zen jendea hiltzen eta mehatxatzen, eta ETAK ere hila zuen mediku bat Pardaki inguruan... Bailaran beldurrez bizi ginenik ezin uka! Tapa!, "hau hil diyek", eta tapa!, "beste hori hil diyek...".

Hurrengo egunetan, zer esaten zizun jendeak?

"Eskapada ederra egin dek", "Korrika ibili haiz ba, geratu besterik ez!" eta antzekoak. Erraz esaten dira gauzak, baina gauez, bost lagun armatutakoak aurrez aurre topatzen dituzunean, nola erreakzionatu behar ote da?

Salaketa jarri eta dirua ateratzeko aukera ere baneukala esan zidan baten batek, baina nik dena ahazteko gogoia beste pentsamendurik ez neukan!

Eta pentsamendu hori lortu al zenuen egi bihurtzea?

Ez berehalakoan! Gorputz osoa minberatuta geratu zitzaidan hurrengo egunetan, eta lanerako ez nintzen gauza. Masajistak esan zidan sorbalda oso gaiztoa

neukala baina sendatuko zitzaidala; gertatukakoa, ordea, ez zitzaidala burutik joango. Eta halaxe izan! Geroztik ez naiz gauza izan oinez ibiltzeko errepidean, ez gauez behintzat. Gauez sumatuz gero baserri inguruan auto bat edo baten bat karakolak biltzen linternarekin dabilela, dardarka jartzen naiz... Noizean behin, burura etortzen zait gertakizun hura, eta orduan komeriak burutik kentzeko...

Artean segan, aizkoran, harrijasotzen... ibilitakoa eta saioikoa izan ondoren, nik ez dakit estuasun latz haren ondorioz izan zen ala ez, baina kontua da handik lasterrera gaitzak bata bestearen segidan etorri zitzaizkidala. Lehenbizi, giltzurrunetatik gaizkitu nintzen, txisean odola irteten zitzaidalarik. Hura sendatu, eta berehala, hatzetako azkazalak galtzen eta odoletan jartzen hasi zitzaizkidan. Burlatako brujoak emandakoarekin onera etorri nintzen, hari eskerrak!

Bizipen hura ez duzu ezkutatu inoiz...

Ingurukoei eta lagunei kontatu izan diet, baina nabarmendu nahi izan gabe. Jendeak igual esaten du "zerbait izango zian horrek...", baina berdin dio. Ni ezagutzen nautenek badakite sekula ezertan sartu gabea naizela, ez manifestazio batean ez ezertan...

Herri kirola, gazte garaiko afizioa

Gaztetan herri kiroletan saiatutakoa zarela aipatu duzu...

Lehen herrien arteko txapelketak, joan etorrikoak egiten ziren herri kiroletan (sokatiran, harria jasotzen, aizkoran...) eta baserri baserri gazteak biltzen zituzten taldeak osatzeko. 18 urte azpikoentzat txapelketa baterako tentatu ninduten behin, eta 17 urterekin zimenduta nengoen ederki! Urnietan taldea osatu eta Andoaingo plazan aritu ginen bertakoen kontra. Gogoratzen naiz zeintzuk ginen: Jesus Belamendia aizkoran, Urretabizkaia pilotan, gero kartzelan hil zen Juankar Alberdi lokotxa biltzen, neu harria jasotzen, kuadrilla sokatiran... 65 kiloko harria altxa behar izaten nuen, hiru minutuko tandetan, txapelketa hartan; 40 altxaldi, hortxe ibiltzen nintzen. Joxean Amenabar Andoaingo ordezkaria zen, eta gogoratzen naiz nola berdinduta geratu ginen altxaldietan Urnietako plazan. Andoain ez ezik Zumaian eta Oiartzunen izan genituen kontrario.

Harrijasotzaile gisa segitu al zenuen?

18 urterekin, kolpe bakarrarekin ere harria jasotzeko gauza ikusten nintzen, nahiz eta gero plazara dardarka atera. Otegi kamineroa erakustera etortzen zitzaidan. Baina gutxi segi nuen. Xoxokako jaietan erakustaldiak-eta hola, ez gehiago. Harrijasotzeko propio balio duen txalekoa ganbaran daukat oraindik...Agudo, ordea, Joxe anaia ondotik hasi zitzaidan xaxatzen, aizkoran hasteko eskatuz. Xoxokako jaietan festa jarri behar zela eta gazteak behar zirela! Halaxe, lan orduak egin, eta gau aldera, Oiamarko goialdean botatako haitza galanta hartu, Land Roverraren argiak piztu, eta hantxe aritzen ginen anaia eta biok egurra



Gaztetan Xoxokako jaietan, aizkolari lanetan. BELAUNTZARAN

mozten, entrenatzen. Hortik aparte, lanetik etorri eta korrika ateratzen nintzen

Adarramendirako joan eta etorria eginez, hauspoarentzat ona zela pentsatuta. Anaia eta biok aizkoran, eta Joxe Martin Garmendia Laburukoa eta Ubillos abizeneko Pagoerdikoa. Geroztik hemendik eta handik deitzen hasi zitzaizkidan, auzoetako jaietan-eta aritzeko. Santa Barbaran, Astigarragan, Ereñozun, Andoainen... Ereñozun, esate baterako, festa ederra jarri genuen Rosario Pikabea eta biok! Oialumen, berriz, biok Olasagastiren kontra egiteko saioa antolatu zuten, baina azken unean Igeldokoa ez zen azaldu, aizkorak lapurtu egin zizkiotela esanda.

Fama hartzen joan nintzen, eta urte mordoak ibili nintzen horrela. 30 urte betetzerako nahiko utzita naukan dena. Kirola egitea beti gustatu izan zait, baina orduan ez zegoen inongo laguntzarik, eta zaila zen serio aritzea herri kiroletan.

Apustueta jarduteko tentaziorik ez al zenuen sentitu?

Ez! Indarrak neurtze horretan grina bai, baina dirua tartean bazen ez nuen ezer jakin nahi izaten. Berotuta ibiltzen zen jendea, eta pikeak sortzen ziren inguruan, baina tira! Nik oraindik badaukat jendea, kalean juxtu-juxtu kasu egiten didana. Nik ez nien baxarik egin behintzat, eta zer egingo dugu...

Herri kiroletarako zaletasuna ez da galdu Goiburu auzoan...

Mantentzen da, bai! Kaleko zein baserriko gazteekin kuadrilla ederra biltzen da herri kirolei eusteko, eta Xoxokako jaietan ikusten da hori garbi. Zaharrenek esaten dutenez Mariano Lasartek eta Joxe Ubillosek bultzatu zuten auzo-festa modu horretara antolatzeko ohitura; alegia, bertako gazteekin eta bertako baserrietan egin izan diren lanei lotutako kirolekin (trontza, sega, korrika, harri jasotzea, aizkora...). Gazteen arteko lehia eta grinak asko balio izan dute beti.

"EHIZA ZEN NIRE AFIZIOA, BAINA ORAIN BAKARRIK BASURDEETARA ANIMATZEN NAIZ"

"BASERRIAN ARI NAIZ BETE-BETEAN, ETA ASPERTZEKO DENBORARIK EZ DAUKAT"

"1986KO MARTXOAN GUARDIA ZIBILAREKIN IZANDAKO GERTAERA EZ DUT INOIZ AHAZTUKO"

"MUGA EZ DAKIT ZENBAT ALDITAN PASATA NUELA ZIOTEN, BAINA DENA GEZURRA ZEN!"

"INTXAURRONDORA ERAMANGO NINDUTELA MEHATXATU ARREN, LIBRE UTZI NINDUTEN"



IRITZIA

XABIER LASA ANDOAIN

Musika Andoainen: Arrakasta eta porrota

Hamabost edizio egin ditu Andoingo Piano jaialdiak, eta Euskal Herrian irabazita dauka erreferentzialtasuna. Jaialdiari eta Andoaini begira jarri da musika munduaren zati bat. Ez hori bakarrik, txalotu egin da ekimenaren prestaketa, zer nolako duintasunez eta maitasunez antolatzen den lekuko delako.

Hori dena, gizartean sortu eta bertan errotu den elkarte batek bultzatua izan dela ez dugu ahaztu behar. Ezinbestekoa da Txitxu Castro, Myriam Ulanga eta Ainhoa Aiertza ekintzaileak goraiatzeko, eta baita hirukoteak lortu duen laguntzaileen konplizitate sarea.

Piano Jaialdiak ez ezik, zenbait urtetan egin diren klarinete topaketak, senideen eta musikazaleen aurrean ikasleek tarteka eskaintzen dituzten kontzertuak... argazki jakin bat proiektatzen digute, Andoain eta musika uztartuz. Halaber, halako dimentsioa hartzen duten herriko ekitaldiek, ezinbestean, balantzea egitera mugitzen gaituzte. Andoingo Musika eskola publikoak herriari zer ekarpen egiten dion galdetzeko, besteak beste. Eta hor, hamarkadatan gazte eta helduei musika instrumentuetan musika formazioa eskaini izanagatik poza sentitzearekin batera, tristura sortzeko motiboak ere badaude. Musikazale eta euskal musikazale gisa, agudo sortzen baitzaigu honako galdera: non dira euskal herritarrek eta haien artzaboez berezkoak izan dituzten trikitia, alboka, txistua, txalaparta...?

Musikan jakitun ez baita izan behar begi bistako errealitate deigarriaz ohartzeko: musika eskola publikoari nortasuna, gureak sentitzen ditugun

instrumentuen soinuak ematen diote. Ez gureak ere sentitzen ditugun beste instrumentu horiek.

Beste hitzetan esanda: Aturri eta Ebro ibaietatik haruntzagoko musika eskola publikoek eskaini dezaketzen instrumentuen eskaintza Andoingoaren antzekoa da.

Joxema Setien Olagain txistulari elkarteko zuzendariak Noticias de Gipuzkoan eta Jexux Mari Otamendi eta Felix Martinez de Lezea txistulariek Aiurri astekarian berriki ohartarazi izan diguten bezala, errealitate hori ez da erraza ulertzen.

Inauterietan murgilduta gabilta, eta egunotan biziberritu den kultur adierazpen horietako batek inkongruentzia hori agerian utzi digu. Otsailaren 8an Goiburu baserri auzoan ospatu zen Axerien Puska Biltzeak txistulariak eta trikitilariak eraman zituen berarekin. Larramendik eta Iztuetak beren idatzietan aipagai zuten ohitura hori gauzatzeko, ezinbesteko elementu izango zen txistua behintzat. Bada, horratz datua: orain bi aste baserri baserri musika zabaldu zuten musikari horiek, gazteak ia denak, ekimen pribatuari edo herri ekimenari esker formatu dira txistuarekin eta soinu txikiarekin, ez musika eskola publikoari esker azken honek ez baitie aukera hori eman.

Egon litezke nire ezagutzatik kanpoko arrazoiak (teknikoak, legalak...) justifikatzeko errealitate horren zergatia. Baina espero dut bazterkeri anakroniko eta mingarri hori ez izatea instrumentu batzuk finak, selektoak, kalitatezkoak, unibertsalak... jo izan direlako, eta besteak "ximaur usaineko"koak.



POSTONTZIA

IPAR HAIZEA PLATAFORMA ANDOAIN

Kezka eta elkartasuna

Ia bi aste pasa dira Zaldibarko zabortegea maldan behera jauzi eta bi langile desagertu zirela. Andoaindik gure elkartasuna adierazi nahi diegu beraien familia eta lagunei.

Geroztik, etengabe informazio kezkarria ari da ateratzen beldurra eragiten duten hitzez beteta, amiantoa, lindanoa etab. Aspalditik genuen zaborren kudeaketa garbia ez zenaren susmoa eta tamalez gure susmoak bete egin dira. Ordezkeri politikoak ixilik, gaia

desbideratuz eta desagertuen familiei erantzunik eman gabe. Ez dago eskubiderik, lotsa gutxi izan behar da gure osasunarekin jolasteko. Urtetan hondakin politika arduragabe eta interesatuak bultzatu dituzten horiek dira gaurko Zaldibarko erantzuleak eta aurki piztuko duten erraustegiaren arduradunak. Arduradun horiek herrigune handietan zaborra sortzea lehenesten dute erraustegiak jatekoa izan dezan, Gipuzkoa erdian baino gehiago gauzak txukun

egiten ari direnean. Arduragabekeria berriro. Zaborraren mafia lehertu da eta azken arduradunak sortutako kaltea ordaintzea eskatzen dugu, bestelako politika arduratsu bat bezain beste.

Zeinen eskuetan gaude? Negozioa bakarrik axola zaie agintariei?

Bestalde, otsailaren 29an 17:00 Donostiako Easo plazatik, larunbata, Larreko Mahaia manifestazioa deitu du. Bertan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.



POSTONTZIA

ERNAI BETERRI-BURUNTZA

Ustelen legea errautsa eta kea

Hemendik kilometro gutxira eraiki duten erraustegia martxoaren 3an jarriko dute martxan. Gipuzkoarrok urteak daramatzagu makro proiektu zentzugabe hone aurkako borrokan eta argi adierazi nahi dugu ez dugula etsiko eta borrokan jarraituko dugula.

Alferrikako azpiegitura kutsakor eta garestiak eraikitzeari utzi eta beste bizimodu baten aldeko apustua egin beharra dago. Gu guztion bizitza erdigunean jarriz eta ez gutxi batzuen etekin ekonomikoa. Beraz, gazteok

argi dugu, herriaren aurkako iruzurrik ez dugu onartuko. Merkaturia eta interes pribatuak lehenesten dituen ereduaren aurrean, bizitzaren aldeko apustua egiten dugu.

Gure hitza entzun dadin, otsailaren 27an goizean ikasle mobilizazioa izango dugu Donostian 12:00etan hasita Gipuzkoa plazatik eta arratsaldean gazte mobilizazioa burutuko dugu Lasarten 19:00etan plaza honetatik hasita. Azkenik, agerraldi hau ere baliatu nahi dugu, Larreko Mahaia

otsailaren 29an antolatu duen herrialde mailako mobilizazioari gure atxikimendua eman eta euskal gazteriarri ere bertan parte hartzera deitzeko.

Ez dugu onartzen ustelkeriarik, ez dugu onartzen gure lurrarekin eta osasunarekin jolasterik, ez dugu onartzen zuen poltsikoak betetzeko proiektu txikitzaileak eraikitzea. Ustelen legea errautsa eta kea besterik ez delako, gu bizitzak erdigunean jartzera gatoz.

Euskal gazteria aurrera!



Aiurri eskuragarri:
Ebeiz etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 39 eurokoa da. Urrietan, 31 euro.
Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
andoain@aiurri.eus
www.aiurri.eus

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.
Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Andoni Urbistondo.
Maketzaileak: Maddi Trutxuelo.
Kudeaketa, harpidetzak: Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus
Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus
Banatzaleak: Mikel Arregi (Andoain), Axun Jauregi eta Rocío Arias (Urnietan).
Diseinua: Goiena Komunikazio Taldea
Zorion agurrak, merkatu txikia: diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus
Whatsapp: 619 163 537
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.
Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA: ERROITZ TALDEA MUGATZA

ALJATUAK: TOKIKOM

BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:

ANDOINGO UDALA

Urnietako Udala

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:

Gipuzkoako Foru Aldundia
Hizuntza Berlindusenerako Zuzendaritza

ZIURTAGIA: Bitkam

BABESLEAK: **Aiurriko harpidedunak** ezinbestekoak dira.



**Andoaingo
Bastero Kulturgunean
Martxoaren 1ean
12:00etan**

**Sarrerak salgai:
Delgado, Ernaitza,
Stop eta Urrats
6.00€**

Antolatzaileak



Agin Laburu Unai Muñoa
Oihana Iguaran Aitor Mendiluze
Nerea Ibarzabal Nerea Elustondo
Gai jartzailea: Unai Ormaetxea

Laguntzaileak



Kantu liburuxka

2020

GAZTANAGA
SAGARDOTEGIA
www.sidreriagaztanaga.com
943 59 19 68

RZABALA
943 69 07 74

MIZPIRADI
TOLARE SAGARDOTEGIA
943 593 954

EGLA
TOLARE SAGARDOTEGIA
943 552 744 - 647 437 703
www.eulasagardotegia.com

AMASA-VILLABONA
Villabonako Udala
www.villabona.eus
943 69 21 00

SAGARDOA
basque origin
info@sagardoa.eus
943 336 811

LARRE-GAIN
Larregain
943 55 58 46
616 287 867

Zaroste
Sagardoa Urnietan bizi da
Urnietako udala

HOTEL **HK10**
HOTELA
943 337 357
info@hotelk10.com

URE LURRA
SAGASTIEN LANDAKETA BULTZATUZ
BERTAKO SAGARDOAREN SUSTAPENERAKO
EUSKAL SAGARDOA
BERTAKO SAGARRONDOAK, BERTAKO SAGARRAK, BERTAKO SAGARDOA
gipuzkoa.eus





Herritar asko elkartu ziren Udal batzarraldi aretoan. Hizlari aritu ziren Maider Lainez alkatea, Marijose izagirre alkate-ordea eta Udal gobernuko hainbat zinegotzi. Ikusleen artean ziren, argazkian ikus daitekeenez, Andoni Alvarez Lete eta Imanol Goenaga zinegotziak. AIURRI

Xaier Lasa, J.A.Ubeda ANDOAIN

Astelehen iluntzean bilera jendetsua eta parte hartzailea bizi izan zen Andoaingo Udal batzarraldi aretoan. Udal gobernuko egitasmo berriaren aurkezpen erronda antolatu du, eta astelehenean Goiburu, Sorabilla, Buruntza, Leizotz eta Calonge auzoetako bizilagunak deituta zeuden. Pleno aretoa bete egin zen, "Andoain Elkarlanean" aurkezpen sortaren ekitaldirik jendetsuena bilakatuz. Aurreko asteko hiru bileretan dozenara ez zen iritsi bilera bakoitzera hurbilduako herritar kopurua.

Ordu eta erdiz luzatu zen aurkezpenean auzotarrek galdera, kexa eta proposamen ugari egin zituzten. Esan liteke, asteleheneko bilerara auzotarrak entzuztera ez ezik parte hartzera joan zirela.

Ezaugarri bereziak dituzten auzoak dira bostak. Parte hartzean hango eta hemengo galderak targetatu ziren. Bilera igarota, hauxe da auzoz auzoko galderak kontutan hartuta egingadako bereizketa.

Gobernu taldeak lan ildoak aurkeztu eta gero, auzotarren txanda iritsi zen.

Landa eremuko auzotarren parte hartzea

Andoain Elkarlanean egitasmoaren aurkezpen sortan, Udalak astelehen iluntzean Goiburu, Sorabilla, Buruntza, Leizotz eta Calonge auzoetako bizilagunak deitu zituen. Parte hartzea handia izan zen, hizpide izandako eskaerak bezain beste

Sorabilla

- Kiroldegia eta auzoa batuko dituen ibaiaren ertzeko bidexkari buruzko galdera egin zen. Udal ordezkarien erantzuna: aurreikusita dago, baina lehenbizi Aldundiak ikastola pareko N1 errepideko bihurtzea bideratu beharra dauka, bidexka egiteko eremu zabalagoa eduki ahal izateko.

- Inquitex lantegiaren parean dagoen Tolosarako bus geltokira iristea arriskutsu dago, Adunako bidean autoak bi norabidetan abiada handian igarotzen direlako.
- Zabor edukiontzien inguruan arratoiak ibiltzen dira.
- Auzora iristeko errepidean dagoen Stop seinale ingurua arriskutsu dago, N1etik autoak

abiadura handian datoze-lako. Eta, gainera, auto horiek datozela antzemateko ikusgarritasun eskasa dagoelako.

- Sorabillako espaloiak politik bai, baino galtzada-harriak hautsita egoten dira askotan, eta konpondu arren berriro hausten dira. Hori horrela izanik, oinezkoek auto-errepidetik ibiltzea nahiago izaten dute.

- Bordaberri eta Sorabilla lotzen dituen landa bidean trafiko handia dabil, kamioiak ere badabil-tza, N1eko peajea ez ordaintzeagatik. Gainera arriskutsu dago gauez, ilun egoten delako.
- AHTko obrak direla eta ur horriduran arazoak dauzkaten baserrietako jabeek ur bonba jarriko zaiela agindu du Udalak, baina inguruan bizi diren beste zenbait auzotar kezkatuta daude bonbak eragin dezakeen zaratagatik. Udaletik informazioa helarazteko eskatu dute.
- Zaborrontzien atzean dagoen belazean aparkalekua jartzeko eskaera egin da.
- Erretoretzeko harrera etxea kudeatzen duen Caritaseko kide baten eskaintza: bertan bizi diren pertsonen prestutasuna auzoa garbitzeko eta auzo dinamiketan parte hartzeko.

Goiburu

- Plazan zeuden bankuak kendu zituzten, eta berriro jartzeko eskatu zuten.
- Goikoplazara joateko bidearen bi aldetan jarritako argi batzuk altxa egin dira. Berriak jarri behar direla eskatu zuten.

Buruntza

- Buruntza auzorako bidean argiteria falta dago; distantzia handiegia dago farola batetik bestera.
- Etxebizitza multzo handia erakitze-ko proiektua dagoenez, auzotar guztientzat topagune izango den espazio bat aurreikusi dezala Udalak.

Leizotz:

- Kanposanturako bidea txukuntzea: Goroldioarekin irristakor dago, zuloak... Oraindik handagoen legez kanpoko zaborte-gia garbitzeko eta argiteria jartzeko eskaera.
- Leitzarango pasealekuan, lehen eta bigarren tunelen aurretik dauden akazien adarrak mozteko eskaera.
- Ubane bailara eta bere erreka zaintzeko eskaera.
- Olazar parkeko aparkalekua zikin dago. Bestalde, errepide horretan gauean auto lasterke-tak izaten dira.

Alejandro Calonge:

- Etxebizitzen fatxadak berritze-ra doazela eta, hezetasuna eragiten duen lorategia txukuntzeko eskaera.

- Udalak jarri dituen piboteetako bat behintzat kentzeko eskaera, anbulantziak igarotzeko ere tarterik ez dutelako uzten.
- N1 eta Urumeako autobideen arteko loturan auto pilaketak sortzen direnean, Ertzaintzak trafikoa Lasarte-Oriarantz bideratzen du. Kaltetuenak Calongeko bizilagunak izaten dira. Udal ordezkarien erantzuna: Ertzaintzari bilera eskatu zaio arazoari irtenbidea emateko.
- Sapa lantegiak gauez zarata handia sortzen du.

Gaiak amankomunean:

- N1eko eta Urumeako autobideetako trafikoak eragiten duten zaraten aurkako panelen premia. Udalaren erantzuna, Aldundiak aurreikusita dauka, eta lehentasunez hartu du Ikastolaren eta Allurralde kiroldegiaren eremua.
- Komun publikoen premia Sorabilla, Goiburu eta Olazar parkean. Udal ordezkarien erantzuna: 65-70 mila euroko kostua dauka komun bakoitzak, eta eskatzen den leku guztietan jartzea ez da erraza.
- Landa guneko baserriak husten ari dira gazte jendez. Neurriak behar dira arazoa ekiditeko.
- Landa gunetako baserriarren aldarria, instituzio publikoek eurek betetzen duten funtzioa balora dezaten: "Denok onartzen badugu kiroldegiaren zerbitzua erabiltzeagatik ordaindu behar dela, zergatik ez eskema berbera erabili landa gunek denok erabili arren gero bertakoek zaintzen dituztenez?".
- Kexa Asuncion klinikaren zerbitzua gero eta kaskarragoa delako, eta Tolosaldea Gipuzkoan ospitale publikoa ez duen eskualde bakarra delako. Udal ordezkarien erantzuna: osasun sistema publikoaren alde diharduen TOPA elkartearekin harremanetan jarri da, gainerako herriekin eskaeretan bat egiteko.
- Kiroldegiaren kantzaren erabilera saturazioa gertatzen ari da, astegunetan zein asteburuetan. Arrate kontutan hartzeko eskaera, saturazio horri erantzun ahal izateko.
- Andoingo kaskoan auto istripu ugari (auto karrerak, biribilguneetan derrapeak...) gertatzen ari direla eta, segurtasun neurriak hartzeko eskaera egin zuten.

Bileraz bilera hizpide izan diren eskaeren lagin bat

Otsailak 11, asteartea

- Belardiak gehiegi moztzen direla eta erabiltzen den tresneriak soinu asko ateratzen duela adierazi zuen Algodonerako plazan bizi den herritar batek. 2006tik N1eko soinutik babesteko panelak ezarriko zirela entzun zuela, eta dagoeneko 2020an gaudela gogorarazi du. Verdascok erantzun zioenez, Aldundiak panelak Aita Larramendi ikastolako eremuan jarriko ditu. Eta gainerako eremuak aurrerago jartzeko asmoa dutela adierazi zuen. Belardiak mozteko soinuari dagokionez, Izagirrek erantzun zion aparailuak berritzen ari direla, piskanaka.
- Ainara Rodriguez zinegotzi ohiak bileretan euskararen erabilera areagotzeko eskaera egin zuen. Era berean, Romero zinegotziari egindako ahaleginagatik zoriondu zuen.
- Ana Carrere alkate ohiak gizarte zerbitzuetako hainbat atal lehendik bideratutakoak direla gogorarazi zuen. Eta, era berean, txakurrak aske ibiltzeko eremuak sortzeko ekintza hori 2014an Udalean lantzen hasi zirela gogorarazi zuen.

Otsailak 12, asteazkena

- Kontrol neurriak behar dira zabor bilketan, oraindik badagoelako jendea zaborra sailkatu gabe uzten duena.
- Renfeko geltokiko tunela zikina egoten da, eta iluna da.
- Herritarren segurtasunari begira, ataritan argia daukaten etxeetako jabeek eskatu beharko litzaieke gauetan piztuta edukitzea.
- Agustin Leitza eta Kale Nagusiko zenbait zuhaitzek argitasuna kentzen diete bertako etxeei.
- Doktor Huizi kalearen hasiera gehiago zaindu behar da: Espaloia, autoen abiadura, zenbait etxe atzealdetan ur zikinak...
- Zakurren udal arautegia ez da betetzen. Kale Nagusian batez ere, zakurrak libre ibiltzen dira muturrekorik gabe eta edozein hormetan txisa eginez. Aldi berean, Etxeberrietako pasealekuko edo erretore etxe ondoko zelaietan ezin da lasai egon, zakur kakengatik.
- Kale Nagusian arazo gehiago: bizikleta eta patineteak gehiegizko abiaduran, arratoiak,...
- Bizikletaren erabilpena sustatzeko kanpainak.

Otsailak 13, osteguna

- Bi bizilagun ezberdinek Nafarroa plazan argi gutxi dagoela adierazi zuten.
- Beste bizilagun batek Plazaola auzoarekiko atentzio hobea eskatu zuen, auzoa nahiko ahaztuta dagoela argudiatuta.
- Leitxaran aipatzen hasita, oinezkoen ibilbidearen hasieran egon daitezkeen arrisku guñeak saihesteko neurriak hartzea eskatu da. Bereziki, adar solteek eta zuhaitz eroriek sor dezaketen arriskuari begira. Ibilbide horretan solte dabilzan zakurrei buruzko ohartarazpena egin da.
- Zakurrei lotuta, araudia betetzea eskatu zen. Baita zakur kaken inguruan kexa agertu ere. Itsusia izateaz gain, higie arazoa dela erantsi zen.
- Klean "vadoa" duten garajeen aurrean ibilgailuak maiz uzten diren salaketa egin zen. Udaltzaingoak bertatik pasatzean ibilgailu horiei isuna jarri edo garabia erabiltzeko proposamena luzatu zuen.
- Aierbeko pasabidean eta inguruetan trafikoa bideratzeko eskaera hizpide izan zen bileran. Trafikoa bideratzeko aukera ezberdinak aztertzen ari direla erantzun zuen alkateak.

Otsailak 18, asteartea

- Langilegora aurrekontu osoaren herena baino gehiago bideratzen dela eta, herritar batek gainerako herriekin alderaketarik egin ote den galdetu zuen. Lainezek adierazi zion Andoain Lasarte-Oria edo Urnieta bezalako herrien gainetik dagoela. Alegia, Andoainen gastu handiagoa bideratzen dela langilegora. Lehen bi partidak kontutan hartuta, Langilegoa eta Zerbitzuak, udalaren jardun osoaren %84a bi partida horietara bideratzen direla erantsi zion alkateak.
- Aingurasutegiko bizilagun bat kexu agertu zen inguru hartan ibilgailuak espaloien gainean uzteko joera handia delako. Ezinduentzat arazoa dela gaineratu zuen.
- Bastero inguruan eta Kale Nagusian irristakor dauden espaloiekin kezka agertu zen. Eremu berean Zaborrontzi gehiago eskatu ziren.
- Adineko herritar batek Allurralde inguruetan, asteburuari begira bereziki, WC zerbitzua eskatu zuen. Eta baita eserleku gehiago, bereziki Txistoki alderako bidean.
- Eserkeluak eskatu ziren Aita Larramendi kalerako ere.

Ondarretakoa, konposta egiteko gune bakarra

Sorabillako eta Etxeberrietako konposta-guneak kendu egin ditu Andoingo Udalak, eta Ondarretako guneari eutsiko dio bakarrik. Erabakia erabiltzaileekin partekatua izan dela adierazi zuten astearte arratsalden egin zuten auzoz auzoko bileran

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Auzoz auzoko bilera errondan, Etxeberrietako auzotar batek eskerrak eman zizkion Udalari auzoan zegoen konposta-gunea kentzeagatik. Auzotar asko erabakiarekin pozik daudela gaineratu zuen. Izagirre alkateordeak eskerrak eman zizkion,

eta hartutako erabakiaren berri eman zuen. "Segurtasuna lehenetsi dugu. Bertako erabiltzaileekin kontrastatu dugu, eta ez da eragozpenik izan. Etxeberrietako gune horretan haur asko ibiltzen da eta segurtasun arazo batean bilakatzen ari zen". Erantsi zuenez, konposta-gunea ken-

tzerakan arratoi ugari topatu zituzten. Etxeberrietakoaz gain, Sorabillako gunea kendu dutela adierazi zuen. Aurrerantz, konposta egin nahi duenak Ondarreta auzoan egiteko aukera izango duela iragarri zuen.

Gaiarekin jarraituz, Lainez alkateak erabakia hartzeko arra-

zoi asko daudela adierazi zuen; "Arratoiak, usaina, konpostagunearen egoera, bertara edozein sartzeko errotasun guztiak zeuden gainera".

Aurreko egunetan Ipar Haizea plataformak eta Eguzki talde ekologistak Udalak hartutako erabakiarekin desadostasuna agertu zuten. Ipar Haizeak salatu duenez, "Etxeberrietako auzo-konposta desagertu da, erabiltzaileei inolako jakinarazpenik egin gabe. Bizilagun eta herritarrek martxan jarri genuen 2014ko maiatzan, Andoainen organikoak biltzen ez zen uanean. Arduraz jokatu genuen eta egungo *arduradunek* kendu dute".

Andoain Elkarlanean bilera errondaren baitan, alkateak eta alkate-ordeak azalpenak eman zituzten.



Bakarka, kuadrillan edo konpartsan mozorrotzeko aukera zabala dago. Ospakizun handiena larunbatean izango da, baina ostegunetik aurrera Andoain inauteri giroan murgilduko da. AIURRI

Inauteri festarako prest

Tolosan ez ezik, Ostegun Gizona Andoainen ere ospatuko da. Lehen lehenik ikasleak murgilduko dira jaietan. Arratsaldean, pintxo potea musika talde ezberdinez alaituta egongo da. Astebururako iragarrita dauden ospakizun handien atarikoak izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Ostegun iluntzeko egitarauan Olagain txistularien parte hartzea iragartzen bada ere, inauteriaren hasiera girotzen talde gehiago arituko dira. Txistulariekin batera, Bastero plazan hasi eta Zumea plazaraino Alberto Agirre abesbatza, Udal musika eskola-

ko abesbatzak eta Kantu kalejiran ibiliko dira. Ostiralean bi hitzordu nagusituko dira, Udal musika eskolako musikarien emanaldi berezia eta Ambrosia Olabiden antolatuko duten Bel-durraren etxea. Herritar askok indarrak hartuko dituzte ostiralean, larunbatekoa egun luzea

izango baita. Goizean hasita mozorro festa nagusituko da herrigunean. Konpartsen desfileak amaiera polita izan ohi du Goikoplazan. Larunbatean, goizeko ordu txikiak arte, jaiak nagusituko da. Eta igandean, nahi duenak, inauteriarekin jarraitzeko aukera izango du.



Zozongo. ZOZONGO

Igandean ere inauteria

Igandean inauteriari eutsiko diote, Andoainen. Iaz abiatutako herri bazkariari jarraipena emango diote. Eta arratsaldean Kolpez Blai energia, dantza eta mugimendua eskaintzen duen ikuskizuna eskainiko du Zozongo taldeak.

Argazki lehiaketa martxan

Argazkizaleei begira, Udalak lehiaketa martxan jarri du. Beraz, Andoaingo ospakizunen inguruko argazki onenak saria dakar. 250 eurokoa, hain zuzen.

Lanak paperean edo digitalean aurkez daitezke, koloretan edo txuribeltzean. Parte hartzaileek argazkia martxoaren 12a baino lehen aurkeztu behar dute, Basteron. Orduetgia: 10:30-13:00 / 16:30-19:30. Emaileraz aurkez daitezke: kultura@andoain.eus. Gehienez ere, 8 megako tamainakoa.



Haurren ospakizun nagusia Goikoplazan izango da, ostegun honetan. AIURRI



Erraldoi eta buruhandiak larunbatean irtengo dira. AIURRI



Udal musika eskolako ikasleen emanaldia ostiralean da. AIURRI

ANDOAIN

OTSAILAK 20

OSTEGUNA

15:00 Ikasleen mozorro festaren hasiera. 8-12 urte arteko ikasleak Bastero plazan elkartuko dira.

15:15 Ikastetxeak kalejiran abiatuko dira, Gora Kaletxiki txarangak eta Andoaingo trikitilariak lagunduta. Ibilbidea: Juan Bautista Erro, Kaleberria, Kale Nagusia, Goikoplaza. Eguraldi txarrarekin, Ondarreta ikastetxeko jolastokian.

16:15 Pregoia eta txupinazoa udaletxeko balkoitik. Eguraldi txarrarekin, Ondarretako jolastokian.

17:15-20:00 Beldurraren Etxea Gazte lokalean.

17:30 Maskara lehiaketaren sari banaketa ekitaldia Urigainen. Lanen erakusketa zabalik, 20:00ak arte.

18:00-19:30 Maskara lehiaketako lanak Urigainen ikusgai.

18:30 Olagain txistularien kalejira Goikoplazatik abiatuta.

19:00 Pintxo pote musikatua Olagain, Alberto Agirre abesbatza, Udal musika eskolako abesbatzak eta Kantu kalejirak alaituta. Ibilbidea: Bastero plazatik Kale Nagusira, eta handik Zumea plazara.

OTSAILAK 21

OSTIRALA

17:00 Mozorro festa eta merienda Gazte lokalean.

18:00 "Itsasoko festa" Udal musika eskolaren saioa Basteron.

18:00-19:30 Maskara lehiaketako lanak Urigainen ikusgai.

OTSAILAK 22

LARUNBATA

11:30 Buruhandi eta erraldoien konpartsa. Ibilbidea: Anbrozia Olabide, Kale Nagusia eta Zumea plaza.

12:00 Konpartsak kalez kale.

10:30-13:30 / 18:00-20:00 Maskarak ikusgai, Urigainen.

17:00-20:30 Inauteri desfilea. Txitibarretik Goikoplazara.

23:00-03:00 DJak Nafarroa plazan.

OTSAILAK 23

IGANDEA

12:00 Konpartsak, kalez kale.

14:00 Herri bazkaria Goikoplazan.

16:45 Zozongoren Kolpez blai! kontzertu ibiltaria, Goikoplazatik hasita.




**Telegram erabiltzailea al zara?
"Aiurri Andoain" kanala bila ezazu, eta jarrai gaitzazu**

Andoaingo albisten jarraipena errazteko aukera.

ALBISTE BERRI ON, IRAKURLE!

www.aiurri.eus | twitter | facebook | instagram | telegram





Kaldereroen parte hartzea handiagoa izan da, aurten. AIURRI

Kaldereroen etorrera

Eguraldi bikaina lagun, iaz baino partaide gehiago bildu zituen Kaldereroen konpartsak. Larunbatekoa bigarren ospakizuna izan zen, bezperan Ondarreta ikastetxeok herrigunean zehar kalejira egin baitzuten

Xabier Lasa ANDOAIN

Hungariako kaldereroek joan zen asteburuan Andoaingo herriarekin izan ohi duten hitzorduekin bete zuten, inauteri giroa eta umorea kaleetan barrena zabalduz. Kalderero txikiak egin zuten lehenbiziko etorrera festa, ostiral arratsaldean. Ondarretako irakasle, ikasle eta gurasoek antolatuta zuten lehen festa hori.

Herri konpartsak, berriz, hurrengo egunean berri zuten ohitura zaharra. Haur, gazte eta helduak Ontza elkartetik abiatu ziren, zartaginak eta mailuak eskuetan zituztela, eta San Juan bataiatzailea zahar egoitzan lehebiziko geldialdia egin zuten. Goikoplazarako bidea hartu zuten gero, bertan kanpalekua jartzeko asmoz.

Bi hitzorduetan kaldereroek Gora Kaletxiki txaranga izan zuten bidelagun. Azken urteetan bezala, erreginen paperean Unai

Ormaetxea eta Ion Beloki bertsolariak aritu ziren. Udaletxean udal agintarien harrera jaso ostean, balkoitik bertso-sorta abestu zuten.

Hona, guztien artetik, bertso ale batzuk:

Ion Beloki:

Udaletxeko balkoi hontatik gataz gu pozez beteta, Kaldereroak berriro ere itzuli zaizkigu eta.

Bere gauz txar sutan hor daude gaurko poliki erreta, desio denak egon ditezen urte guztian beteta.

Unai Ormaetxea:

Burua gelditu didate hainbeste laka ta esprai, eta gainean urrezko asko kateak nik zenbait.

Balkoi hontan alperrik dira bai Adidas edo Naik.

Baina gauza bat esango dizut: neri asko gustatzen zait.

Ion Beloki:

Urtetik urte igotzen ari da kaldereroen nibela. Kamioneta berria degu hau ikus dezatela. Aipatu behar urterik urte ikusten det nik horrela, lenego urtetik aurten gutxinez jende gehiago garel.

Unai Ormaetxea:

Hungariatik etorri gera honeraino salto batez. Ez gera izango gaur gu arrisku ez gabiltza gaurkon kaltez. Hizkuntza ere ikasi degu, egiten degu guk artez. Euskaraz ere hitzegin degu hemengo askoren partez.

**KALDEREROEN
BI HITZORDUETAN
GORA KALETXIKI
TXARANGA IZAN
ZUTEN BIDEAGUN**

Haur ospakizuna ostiral arratsaldean



Ondarreta ikastetxeok kalejira egin zuten, herrian barrena. AIURRI

Lehen ospakizuna, ostiralean Azken urteetan ospakizun bikoitza egiten da Andoainean. Lehen, ostiralean. Eta, bigarren, larunbatean. Bi ospakizunen irudiak aiurri.eus gunean ikusgai daude.



Gora Kaletxiki Banda. AIURRI

Ion Beloki:

Lehen ere esan det eta horrek jarri nahi nuke arreta: gauza askotan ikusten degu Exteberen furgoneta. Udaletxeak eman behar dio diru txiki bat gordeta, zeren urtero bospasei bat aldiz preparamen zaigu eta.

Unai Ormaetxea:

Berriro ere bildu gerala gaurkoan jende andana. Extebek ere ederki asko preparatu ditu lanak. Balkoi honetan Ion eta Unai aurrera ematen planak. Aurten ere berriz hortxe daude elizako kanpanak.



andoainDARRA
euskaraz



Zirkoan ager daitekeen pailazo belgugarria, Urnietako San Juan plazan. AIURRI

Zirko bat datorkigu

"Zirko bat datorkigu, atzetik joango gara gu" euskarazko haur kantu ezaguna aproposa da Urnietako inauteria sustatzeko. Zirkoa da proposatu den gaia, eta zirkoari segika herritarren parte hartzea sustatu nahi da

Erredakzioa URNIETA

Urnietan inauteriaz gozatzeko geroz eta aukera gehiago dago. Larunbatean egingo da ospakizun nagusia, eta herrigunean mozorro jaiaz gozatzeko aukera geroz eta hobea da. Aurtengo berrikuntza nagusietakoa Bosko Anitz aisialdi taldeak dator. Izan ere, euren txarangak herrian barrena kalejira egin eta festarekin jarraitzeko ikastetxera igo ohi ziren. Aurtengoan ez da horrela izango, eta euren mozorro lehiaketa Etxeberri plazan egingo da. Udalak oharrarean ondo adierazi duenez, modu horretan "Salestarretan

burutu izan den ekimena herrira ekarrita, herrigunean inauteri giroa handitzea lortu nahi da". Lehiaketarako tartea iritsi aurretik, Poxta Zahar taldearen elektrotxarangak kaleak alaituko ditu. Dantzan hasteko aukerarik ez da faltako, beraz. Idiazabal kalea, gainera, inauterizaleen eremu bilakatu da. Ordu horietan ibilgailua hartu behar dutenek, ezbeharririk gerta ez dadin, trafikoarekin zerikusia duten seinaleak adi jarraitu beharko dituzte.

Igandean jaiak Etxeberri plazan jarraipena izango du, mozorro lehiaketa berriarekin eta

pintxo potearekin. Hango auzo elkarte sasoiko dago, eta urtean zehar herriari eta auzoari baliagarriak zaizkion proposamenak eskaintzen dizkio.

Gazteentzat inauterian murgiltzeko hirugarren egun bat izango da. Ostiralean, hain zuzen. Gaztelekuan haur eta gaztetxoentzat eskaintza zabala izango da. Egitaraua urtez urte osatuz, Urnietan inauteri giroa indartuz doala dirudi.

Urte osoan egin bezala, aurtengo inauterietako argazkiak eta bideoak Aiurri.eus webgunean eta sare sozialetan ikusi ahal izango dira.

URNIETA

OTSAILAK 21

OSTIRALA

17:00 LH6, DBH1-2 mozorro festa Gaztelekuan.

19:00 DBH3-4 mozorro festa Gaztelekuan.

OTSAILAK 22

LARUNBATA

12:00 Txanbolin bandaren kalejira.

12:30 Poxta Zaharren potea abiatuko da Zubitxo plazatik.

14:30 Herri bazkaria Udal frontoian.

17:00 Inauterizaleen topaketa egingo da San Juan plazan.

17:30-20:30 Idiazabal kalean trafikoko mozketak.

17:30 Inauteri desfilea irtengo da San Juan plazatik, Bosko

Anitz txarangak girotuta. Desfilea Maximo lurramendi kaletik Idiazabal kaleraino.

18:00 Elektrotxarangaren abiatzea.

19:00 Elektrotxaranga Etxeberri plazan izango da hitzordua. Bosko Anitzek antolatutako mozorro lehiaketa. Eguraldi txarrarekin, Egapen. Ondoren DJ saioa.

23:00-01:00 DJ saioa.

OTSAILAK 23

IGANDEA

17:30 "Sortu zure orri-markatzailea" tailerra eta txokolatada solidarioa Etxeberri plazan.

18:30 Sara Grajal eta PJ Kahuna zuzenean.

19:30 Mozorro lehiaketa. Halaber, pintxopoteaz gozatzeko aukera izango da.



Urnietako
udala



Mikel Alonso Argentinan, San Juan itzuliko etapa baten atarian. EUSKADI

"Hobeto iristen naiz helmugara"

MIKEL ALONSO EUSKADI FUNDAZIOKO TXIRRINDULARIA

TXIRRINDULARITZA 23 urterekin, bere kirol ibilbideko hirugarren denboraldiari ekin dio urnietarrak. "Urte erabakigarria", bere hitzetan

Andoni Urbistondo URNIETA

Argentina aldean bi astez ibili zen urtarrilean Mikel Alonso (23 urte). Han ikusi du ia zetik hona jauzia eman duela, txirrindulari azkarrenengandik hurbil egon daitekeela. Entrenamenduak aldatu ditu, Jorge Azanza kirol zuzendariak lagunduta: indarra lantzen ari da, fondoa baino gehiago, eta fruituak jasotzen ari da. Euskal Herriko Itzulia korritu nahi luke, baina

jakitun da ibilbidea ez dela aproposa berarentzat, eta zail ikusten du.

Zer moduz San Juango Tourrean? Ondo. Bidaia gogorra, batez ere itzulerakoa. 32 ordu pasa genituen San Juan hiririk irten eta etxera iristerako. Handik Buenos Airesera bi ordu, gero han Madrilgo hegaldia hartzeko itxaronaldia, Madrilera beste 12 ordu, batere lorik egin gabe, eta aireportutik etxera furgonetan, bes-

te bost ordu. Etxean ia bi egun buelta emateko. Aurreneko egunean 12 ordu lo, hurrengoan lo pixka bat egin eta entrenamendu laburra...

Azken unean sartu zinen San Juango taldean.

Bai, Mikel Aristi taldekidea zen joatekoa, baina belaunean mina zeukan. San Mames zelaian egin genuen aurkezpenean egoera zein zen azaldu zidaten, eta badaezpada prest egoteko, hegaldian

izena aldatzea lortzen bazuten Argentinara joango nintzela, eta hala izan zen. Gaueko 11.30an deitu zidaten, konfirmatuz, eta hurrengo goizean, 10.00an hegazkinean nengoen ja.

Lasterketa hori ez zegoen zure plangintzan. Zer moduz moldatu zara?

Ondo. Kide baten hutsunea betetzen duzulako penatuta sentitzen zara hasieran, baina esperientzi polita izan da. Beroarekin ondo moldatzen naiz, baina hangoa gehiegi da. Egutero 40 gradu baino gehiago. Tira, 12-13 egun egin ditugu kulote motzekin entrenatzen eta lehiatzen, Ipar Hemisferioan negu bete denean, eta hori ere garrantzitsua da.

Zer zenekien San Juango Itzuliaz?

Ezer gutxi. Basamortua dela, bero asko pasa behar genuela... Ibilbidez itzuli egokia da niretzat, bukaera gehienak esprintean direlako, eta esprintarren maila oso ona delako.

Zer sentitzen da alboan Gaviria, Peter Sagan eta beste dituzunean?

Sagan akerren pare, ezker-eskuin burukoak ematen ikusi genuen esprintetan.

Bai, ni ere han nintzen, eta niri ere eman zizkidan buruko batzuk, ez pentsa. Ez mina egiteko asmoz, kokapena babesteko baizik. Lasterketetan gertatzen diren gauzak dira, eta barruan gertatzen diren gauzak barruan utzi behar dira. Sagan mutil jatorra da, hitz egin genituen hitz batzuk, zer moduz nindoan eta beste.

Eta, beldurrik ez?

Hor ezin duzu beldurrik eduki, beldurrarekin sartzen bazara 40. postura joaten zarelako aitaren batean. Aurreko urteetan beldur gehixeago neukan, baina aurtun ziurrago ikusten dut nire burua.

Bakarren batek esango zuen, agian, zuek hain gazte, eta oilarren pare jarri nahi izatea, oso zuzena ez dela...

Beno, norberaren jardunak asko laguntzen du egoera horretan. Gu lasterketa buruan ibili ginen etapa askotan, aurpegia ematen. Aurkariak ikusi gintuzten, Deceuninq-n ondoan, eta errespetu pixka bat irabazten duzu. San Juan Tourrean tropelean gure tokitxoak egin dugula esango nuke. Ez dugu garaipenik lortu, ados, baina neurri ona eman dugu, saiatu gara. Top 10etik gertu egon gara, eta ondoan izan ditugun aurkariak Tourrean

garaipenak lortzen dituztenak dira.

Zale denak aho bete hortz geratu ginen Remco Evenepoel gazteak mendian bukatu zen etapa bakarrean egin zuen erakustaldiarekin. Nola bizi izan zenuen zuk?

Ba zinemako palkoan banengo bezala. Haize-babesak sortu ziren, eta ni lehen taldean sartu nintzen. Ondoren etorri zen Evenepoel, atzetik, eta ni aurretik atzera, indarrak gorde behar nituelako, hurrengo egunetarako. Baina ikaragarri dabil. Lehen aldia da berarekin korritzen dudala, eta oso ona da. Filippo Ganna jazarpeneko munduko txapeldunari 14 kilometroan 45 segundo sartu zizkion, eta hori denbora asko sartzea da.

Iaz Kontinental Mailan lehiatu zineten, aurtun koska bat gorago, Kontinental-Profesional mailan. Aldaketaren bat nabaritu duzue?

Taldean azpiegitura hobea dago, eta taldekideak grinatsu ikusten ditut, hasieratik gauzak ondo egiteko grina handia. San Juanen ondo ibili gara, gurpilean ondo joaten zarelako. Haize babesak egon ziren etapan nahiko ondo moldatu ginen.

15., 14. eta 12. postuetan sailkatu zinen hiru etapetan. Emaizta politik.


Bai. 15. helmugaratu nintzen egunean Saganen atzetik nindoan azken zuzen gunean, eta bera hirugarren helmugaratu zen. Konfiantza eman didate postu horiek, ondo ikusi naiz, indartsu. Etapa bukaeretara iaz baino osoago iristen naiz, muga-mugan iritsi gabe.

Eta aldaketa hori, nolatan? Prestakuntza aldatu duzue?

Jorge Azanza kirol zuzendariarekin hitz egin nuen denboraldi hasieran, eta klik txiki bat egin dugu entrenamenduetan. Gimnasioan lan gehiago egiten ari naiz, iraganean nintzen txirrindulari azkar hori izateko berriz. Fondoa baino indarra lantzen ari gara, intentsitate handiagoa, eta momentuz aldaketa fruituak ematen ari da. San Juanen batez besteko handiak atera genituen, 45 kilometro orduko, eta 160-180 kilometroko etapak, 40-45 graduekin... 7-8 litro likido edaten genituen egunero.

Taldean ondo?

Bai, sei lagun joan ginen Argentinara, eta oso harreman ona eduki dugu. Ihesaldian sartu ginen ia egutero, eta bukaeran hortxe, tropel buruan lanean, ni aurrera eramateko.



Urnieta, aurtengo elastikoarekin. EUSKADI

Zuretzat lanean aritu dira, beraz.

Bai, eta eskertzen diet konfiantza. Niri ere tokatuko zait taldekideentzat lan egitea, ez daukagu ego arazorik gure artean. Gustura egingo dut kideentzat lana. Lobatorentzat, adibidez. Eskarmentu handia du, badaki non eta nola kokatu, eta nik bere bideratzaile izateko lan ona egin dezakedala uste dut, ondo ikusten baitut nire burua. Eta bera alboan badut, ba ikasi, esprintetan mugitzen. Sprinter on bat izateko eskailera guztiak pasa behar dira: langile, bideratzaile, eta azkenerako, ahal bada, garaile.

Ze egutegi duzu Murtzia eta Almeiriaren ostean?

Ba Alenteixoko Volta Portugalen, edo Coppi-Bartali klasikoak Italian, ez dakit ziur oraindik. Alenteixon lortu ditut nire kirol ibilbideko emaitza onenak, hirugarren etapa batean, eta joaten banaiz, garaipenetik gertu egotea espero dut.

Euskal Herriko Itzuliko zazpikoan sartzeko aukerarik bai?

Zaila. Oso menditsua da. Ni 5-10 minutuko aldapetan ondo moldatzen naiz, baina luzeagoetan ez hainbeste. Itzulian fondo handiko txirrindulariak moldatzen dira ni baino hobeto. Men-

date luzeak pasatzen dituztenak. Gure taldean maila handia dago, Euskal Herriko errepideetan ondo moldatzen direnak. Frantzia egun bateko hiruzpalau proba badaude, garai berean, proba gorabeheratsuak, gogorrak. Desnibel handikoak, baina mendate txikiak dituztenak. Saiatu, saiaturko naiz, zazpikoan sartzen, baina gauzak diren bezala, nahiko zaila ikusten dut.

Vueltako gonbidapenak ziurra ez izateak zenbateraino baldintzatzen du zuen jarduna?

Zaila dago, eta puntu asko lortu behar dira, baina korritzea handia litzateke. Hasieratik lan ona egitera behartzen gaitu gonbidapena ez edukitzeak, eta horretan ari gara.

Oso gaztea zara oraindik, 23 urte, baino hirugarren urtea duzu dagoeneko profesionalean. Txirrindularitza bidea egin dezakezula pentsatzen duzu?

Bai. Azken bi urteak gorabeheratsu samarrak izan dira, arrazoi bategatik edo besteagatik izan. Jarraikortasun gutxi, egutegi laburra, lesioak... Urtetik urtera hobekuntza nabaritzen ari naiz. Jarraikortasuna lortzen badut aurrerapausoa eman dezaket.

Urte hau giltzarri izan daiteke zure garapenean?

Bai, guztiz. Lasai ibili zalea naiz, baina hazteko borondate handiarekin. Bi urteko kontratua dut Fundazioarekin, horrek lasaitasuna ematen dit, baina koskaz koska maila igotzen joan nahi nuke.

Jorge Azanza aipatu duzu. Figura garrantzitsua da zuretzat.

Niri dena eman dit. Aita baten parekoa da niretzat. Jubenil mailan nengoenetik dago nire alboan, eta nire kirol ibilbidea ezin da bera gabe ulertu. Bera eta gurasoak gabe agian ez nintzateke hemen egongo.

Egunero hitz egiten dugu, esutu egiten nau gauzak ondo egiten ez ditudanean, eta ondo egiten ditudanean sobera ez puzteko aholkatu... Motibazio handia daukat gauzak ondo egiteko.

"ETAPA BUKAERARA IAZ BAINO OSOAGO IRISTEN NAIZ, MUGA-MUGAN IRITSI GABE"

"ARGENTINAKO SAN JUAN ITZULIAN GURE TOKITXOA EGIN DUGULA ESANGO NUKE"



Candanchu. CANDANCHU.COM

Eski irteera atzeratu du Zanpatuzek, elur faltagatik

Elkarteak martxoan bigarren saiakera egiteko asmoa du, beti ere elurra baldin badago

Andoni Urbistondo URNIETA

Otsailaren 29ko eski irteera atzeratzea erabaki du Zanpatuzemendi elkarteak. Pirinioetan apenas dago elurrik, eta Candanchun ere dozena bat kilometro baino ez, eskiatzeko moduan. Elkarteak martxoa bukatu bitarte itxarongo du, irteera berriro antolatu edo ez erabakitzeko, beti ere botatzen duen elurraren baitan. Horren berri zehatz emango du mailing bidez eta Aiurri astekariaren bitartez.

Bestalde, elkarteak salgai jarri ditu Zanpatuz mendizaleen elkartearen logoa erakusten duten kamisetak. 150 inguru daude, horietatik gutxi batzuk umeen neurrikoak dira. Bost euroko salneurria dute, kostu prezioa, eta datorren bi astelehenean (otsailak 24 eta martxoak 2) eskuratu ahal izango dira elkartearen lokal berrian. Iluntzeko 19:00tatik 20:00tara, Errekalde 1 kalean.


ESKI IRTEERA EGITEKO ELUR BALDINTZARIK EZ DAGOENEZ, ATZERATZEA ERABAKI DA

Denboraldian aurrera

ESKUBALOIA Urnieta Quel Abogados eskubaloi taldeak denboraldiko hamabigarren garaipena lortu zuen Pulpo taldearen aurka (30-25). Sentsazio ona berreskuratzen hasi dira urnietarrak, baina oraindik lan handia egin beharko dute datozen partidetan; Ereintza 2. postutik bi puntura dago, 3. postuan.



U.K.E



BURUNTZALDEA IKT

Lorpen handiak igeriketan

IGERIKETA Buruntzaldea IKTko Nerea Santos urnietarrak urrezko domina lortu zuen junior mailan (1.500 librea); zilarrezko 2 domina nagusien mailan (1.500 librea) eta junior mailan (800 librea); brontzezko domina nagusien mailan (800 librea). Eneko Elizasu andoaindarrak, berriz, urrezko domina eskuratu zuen (1.500 librea).



GIPUZKOA PILOTA

Tanto baten faltan

PILOTA Mendizabal-Espinar bikoteak ezin izan zuen garaipena eskuratu Arrieta-Mendizabalen aurka, Emakumea Pilotari txapelketako finalean (22-21). Oro har joko oso parekatua izan zen, baina azken uneko akatsek partida Arrieta-Mendizabalen alde joan zen.

HITZORDUAK

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 20

ESKUALDEA Hauteskundeak
hauteskunde-eroldaren zerrendak jendaurrean ikusgai daude, otsailaren 24ra arte, Udal Bulegoetan eta Donostiako Jose Maria Soroa kaleko 23an dagoen Hauteskunde-Erroldaren Bulegoetan.
Azken eguna: Otsailak 24.

ANDOAIN Erakusketa
"Ezlekuak", Maritxalarren artelanak otsailaren 29ra arte ikusgai.
Ohiko ordutegia Bastero.

ANDOAIN Mintzalagunak
Euskararen sustapenean aritzeko deialdia zabalik dago. Euskaldunak behar dira, euskara ikasteko bidean trebatzaile izan daitezten. Informazioa udaletxean edota AEK euskaltegian.
Informazioa: Udaletxea, AEK.

URNIETA Emakumeen afaria
Emakume Langilearen Nazioarteko eguna dela eta, martxoaren 7rako afaria antolatu da Oianume jatetxean.
Azken eguna: Martxoak 6.

OSTIRALA 21

URNIETA Ikastaroa
Jabetze Eskolak "Gizonak berdintasunera bidean" ikastaroa antolatu du. Martxoaren 7an izango da, 09:30etik 13:30era. Izena eman daiteke Lekaion, Gazte informazio puntuan eta webgunean.
Izena emateko azken eguna.

URNIETA Diaporama lehiaketa
Maddalen Kortajarenak Islandian egindako bidaiaren berri emango du.
18:30 Lekaio. Doan.

ANDOAIN Elkarretaratzea
Erraustegiaren aurka agertzeko talde argazkia aterako da.
18:30 Goikoplaza.
19:00 Zumea plaza.

LARUNBATA 22

ANDOAIN Inauteriak
Ospakizun handia herrigunean. Egitarau osoa 8-9 orrialdeetan.
Egun osoan zehar.



Paisaia plana herritarrekin batera egin dute, azken hilabeteotan. UDALA

URNIETA Proposamenak aurkezteko aukera zabalik dago

Urnietako Paisaia Plana garatu duen Araudi enpresak Urnieta herri jasangarriagoa lortzeko gomendioak eman ditu. Aurreko astean aurkezpena egin zuten lekaion, eta aurkezpena joan ez ziren herritarrek ere ekarpenak egiteko aukera dute.

Martxoaren 1a bitarte, Bertan, Urnieta.eus.

URNIETA Inauteriak
Ospakizun handia herrigunean. Egitarau osoa 10-11 orrialdeetan.
Egun osoan zehar.

IGANDEA 23

URNIETA Antzerkia
"Ni munduko txarrena", Vaiven konpainiaren eskutik. Aurre estreinaldia.
19:00 Sarobe.

ASTELEHENA 24

ANDOAIN Erakusketa
Maskara lehiaketara aurkeztutako lanak ikusteko aukera.
18:00-19:30 Urigain. Azken eguna.

URNIETA Deialdia
Federatu txartelak jasotzeko aukera izango da Zanpatuz mendizaleen elkartearen egoitza berrian.
19:00-20:00 Errekalde kalea, 1.

ASTEAZKENA 26

ANDOAIN Aurkezpena
"TOKIKOM Wiki proiektua"ren egitasmoa.
19:00 Udal Artxiboa.


OSTIRALA 28

URNIETA Diaporama lehiaketa
Olaiia Iraolak eta Andrea Isasak 163 egunetan zehar Argentina, Txile, Bolivia, Peru eta Kolonbian barrena egindako bidaiari azalduko dute.
18:30 Lekaio. Doan.

LARUNBATA 29

ANDOAIN Kontzertua
Feten Feten emanaldia: Jou Gonzalez haizea instrumentuarekin, Jorge Arribas akordeoiarekin edo Diego Galazen biolinarekin.
21:30 Bastero. 12 euro.

ZINEMA



ANDOAIN
BASTERO
Jojo Rabbit
Larunbata, 22.
19:30, 22:00.
Igandea, 23. 19:30.
Astelehena, 24.
19:30, 22:00.

Adu
Larunbata, 29.
19:30, 22:00.
Igandea, 1. 19:30.
Astelehena, 2.
19:30, 22:00.
Fidelio (Opera)
Marxoak 17. 20:15.



SINOPSISIA



Jojo Rabbit
Zuzendaria, gidioa: Taika Waititi, Christine Leunensen eleberrian oinarrituta. **Aktoreak:** Roman Griffin Davis, Scarlett Johansson, Thomasin McKenzie, Taika Waititi, ... **Herrialdea:** AEB (2019). **Generoa:** Drama, Komedia. **Iraupena:** 108 min.

Elkartasunezko bertso saioa

Datorren martxoaren 1ean izango da Hurria-Sahara elkarrekin urtero antolatzen duen bertso saioa. Ohi bezala igandearrekin izango da, eguerdiko 12:00tan hasita. Agin Laburu, Oihana Iguaran, Nerea Ibarzabal, Unai Muñoz, Aitor Mendiluze eta Nerea Elustondo izango dira aurtengo saioko bertsolariak. Seikotea Unai Ormaetxearen esanetara arituko da. Sarrerak 6 eurotan salgai daude Delgado, Ernaitza, Stop eta Urrats saltokietan.



Martin eta Mendiluze, iaz. AIURRI

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Peio
Otsailaren 20an
hamar urte!!!
Ondo pasa
eguna
etxeke
guztiek!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak webgunean eta Aiurri astekarian.
Oso erraza da, eta dohainik! Hiru bide dituzu:

www.aiurri.eus

Sar zaitez "Zorion agurrak" atalean, eta fitxa osa ezazu. Mezua eta argazkia igotzen diren unetik, urtebetetze egunera bitarte, ikusgai izango da webgunean.

diseinua@aiurri.eus

Ildati: izen-abizenak, herria, eguna.
Arantzibia 4-5, behea
Etor zaitez bulegora, Andoainera.
Whatsapp bidez:
619 163 537.

Jasotako ia proposamen guztiak baliagarriak dira

Urte hasieran Urnietan abiarazi zuten parte hartze prozesuan 344 proposamen jaso zituzten. Udalak argi berdea eman die 341 proposamenei. Segidan, Hirigintza saileko teknikariek proposamen guztiak aztertzeari ekingo diote

Erredakzioa URNIETA

Urnietako Udalak urtearen hasieran abiatu zuen parte hartze prozesua, eta bertan jasotako proposamen guztiak aztertzeari ekin zion. Besteak beste, parte hartzaileen erroldari eta adinari erreparatu diote. Udalak emandako datuen arabera, jasotako 344 proposamenen artean 341 onartu egin dituzte. Hortik aurrera, hauxe da Udalak iragarri duen prozedura: "Orain, proposamen horiek guztiak aztertuko dituzte hirigintzako teknikariek, prozesuaren hasieran zehazturiko gainerako baldintzak betetzen dituzten ikusteko. Ondoren



Urte hasierako parte hartze prozesua.

erabakiko dute zein proposamen egingo diren, eta, azkenik, bilerari teknikariek hautaturiko proposamenen berri emateko".

Udaberrian, bigarren parte hartze prozesua

Lehen parte hartze prozesua amaituta, udaberri aldera, bigarrenari hasiera emateko asmoa du Udalak. Bigarren horretan herriko zein parke edo gunere ireki estali erabaki beharko da. Erabaki hori hartu aurretik, Urnietako Udalak herritarren iritzia jaso nahi du. Eta horretarako bigarren parte hartze prozesua abiaraziko du.

Andoaingo Piano Jaialdia Aiurri.eus guneko atal berezian

Bideo ezberdinetan ikasleen saio ugari ikus daitezke. Baita antolatzaileen eta Udal agintarien balorazioa ere

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Itzal handia lortu duen jaialdia da, Andoaingoa. Ehunka ikasle hurbildu ziren, Euskal Herri osotik etorritakoak. Jaialdiak antolaketa lan bikaina egin ohi du, musikariak etortzen direne-

tik domina eta diploma jasotzen duten arte. Aiurri bat egin ohi du ekimenarekin, eta musikari bakoitzari astekariaren ale bana ematen zaio. Ale horretan jaialdiaren testuingurua hobeto ulertzeko argibideak agertu ohi dira.

Lankidetzaz horrez gain, Aiurri.eus webgunean aurtengo piano jaialdiko hainbat bideo ikus daitezke. Azken eguneko emanaldi bereziko hainbat bideo, esaterako, ikusgai daude. Bertan musikari asko ikus daitezke zuzenean jotzen. Ikasleen bideo horiez gain, Francisco Escudero kontserbatorioko emanaldia eta Alaitz Artola eta Asier Pagazaurtundua musikari gazteen bideoak ikus daitezke. Musika saioez gain, antolatzaileen eta agintarien adierazpenak ikus daitezke ere.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Ertzaintza: 943 538 840.
Osasun zentroa: 943 006 680.

ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Gizarte Zerbitzuak: 943 304 343.
Osasun zentroa: 943 006 670.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ANDOAIN

Larunbata 22 eta igandea 23
ANSA: Ondarreta, 8.
943 591 302 Andoain.

URNIETA

Larunbata 22 eta igandea 23
ETXEBARRIA: Andre kalea, 48.
Cuevas. 943 551 793 Hernani.

GAUEZ

URRUTIA-MARTIN: Etxeberria, 1.
Florida. 943 557 738 Hernani.



Aiurri.eus gunean, bideoak atalean, ikusgai dago ikuskizuna. AIURRI

DBH2 mailakoen antzezlanak Aiurri.eus gunean ikusgai

Magalek Saroben taularatu zuen "Super H hontz zuriaren lurraldean" antzezlanaren bideo osoa, sarean

Mikel Arberas URNIETA

Superheroi, izar, sorgin eta hontzen lurraldean murgildu ziren Urnietako DBH2ko ikasleak. Helburu solidarioa zuen ekimenak, haur minbiziaren inguruko sentsibilizazio kanpaina baten barnean. Ipuinaren abiapuntua

Super H elkartearengana dago. Akzen hauek eskertza adierazi zuten: "Bizi izan genuena izugarria... Bi emanaldi, biak jendez beteak... Irakasle eta SuperH-ren partaide garen aldetik, diruarekin ordain ez daitekeena atzoko esperientzia!"



Piano Jaialdiko azken eguneko emanaldiko irudia. AIURRI


Hamar urtez Twitterren

Aiurrik parte hartze aktiboa du sare sozialetan. Nagusiki, Twitter eta Facebook sareetan. Piskanaka Instagram eta Telegram sareetan indartuz doa. Twitterren kontua zabaldu zela hamar urte betetzean, Andoaingo erabiltzaileek zorion mezuak bidali dituzte

Erredakzioa ANDOAIN

Dozenaka mezu jaso ziren aurreko asteburuan. Erredakzio taldeak parte hartu zutenei eskertza adierazi nahi die. Eferidearekin bat egin zuten parte hartzaileen hainbat mezu jarraian:

- **Koldo Otamendi** (@koldoOtamendi): @Aiurri 10 urte txiokatzen! Gurean egunero geratzen dena milaka txioen bidez zabaltzen!
- **Petra Romero Pozo** (@PozoPetra): Zorionak @Aiurri, zuen lanagatik, beste hamar urtez!
- **Teresa Santana Rubio** (@mteresantana): Zorionak @Aiurri zuen lanagatik eta zorte ona etorkizunerako!!!
- **Andoni Alvarez Lete** (@andoniAlete): 10 urte Aiurrik twitter bidez ere kalitatezko kazetaritza egiten. Askok aldatu da kazetaritza azken urtetan eta goi mailan jarraitzen duzue. Zorionak lan talde osoari.
- **Esti Mujika** (@Estimujika): Zorionak @Aiurri jarraitu urte askoan txiokatzen, euskaraz informatzen eta herria hain gertu sentiarazten.



#2010AiurriTwitter2020 traola erabiliz, Andoaingo hainbat erabiltzaile zorion mezua uztera animatu ziren. AIURRI

- **Ekain Zubizarreta** (@ximonarizko): @aiurri | k 10 urte Twitterren. Gertutik informatuz eta herri-tarrei ahotsa emanez, eskualdea hobetzen duzue. Bejondeizuela!
- **Ainara Arratibel** (@ainaraarratibel): Andoain euskalzaleago egiten laguntzeagatik.
- **Maidier Lainez** (@MaidierLainez): Euskalzale naizelako, gogokodut Aiurri. Eskerrik asko euskeraz informatzeagatik!

- **Gotzon Lete** (@gotzon1979): Tokiko berriak ematen dituen hedabide euskalduna, ezinbesteko bihurtu dena Urte luze hauengatik Zorionak! Lan bikaina. Bejondaizuela eta lagundu dezagun!!
- **Axi Mirón** (@axigune): 3650 albiste, irudi, ohar eta kilometro, informazioari aurre hartuz. 21.200 txio herritarren zerbitzura. Mila ezker!
- **Ehildu Andoain** (@ehildu_andoain): Zorionak @aiurri eta bere lantalde osoari. Behar dugun informazioa; tokikoa, anitza, uneoro eta euskaraz. Zorte on etorkizunean ere.
- **Jon Iraola Treku** (@joniraola): Herri biziak dira gureak eta herria bizitzeko 11 modu daude. Hamar urtez hor egon zarete eskualdeko herrien bizitzaz bizi-bizi txioka. Izan daitezela beste horrenbeste gutxienez. Herriak bizitzen segitzeko behar zaituztegu! Zorionak!
- **Amaia Etxezarreta Ansa** (@amaiaetxetxa): Herria gertu izateko beti gertu da @Aiurri Milesker

- **S.D.Euskalduna** (@SDEuskalduna): Aupa Aiurri! Beste 10!
- **Ezekiel** (@YoLaTengo13): Beste 10 urtez, astero eta hamabostero @aiurri irakurri.
- **Gurutze Lasarte** (@glasarte77): Zorionak Aiurri!!!!
- **Jonathan Lopez** (@urnietameteo): Zorionak @Aiurri 10 urte honetan Twitterren gure txokoan albisteak ta gauza pila bat informatzeko. Urte askotarako!
- **Mante** (@MKMNDNT): Guztiontzako plaza eta informazio leiala, ez dago gehiago eskatzerik!
- **Ibai Lasarte** (@ibi87): Zorionak Aiurri!! 10 urte herriaren bozgoragailu.
- **Pello Oria** (@pellooria): Zorionak ekipo, jarraitu berdin.
- **Ipar Haizea** (@haizea_ipar): Herri mugimenduarentzat bozgorailu garrantzitsua da, gure iritzi, datu, informazio... andoaindareei plazaratzeko. Beste 10 urtez gutxienez!!!
- **Beñat Erkizia** (@berkizia): 10 urte, milaka txio. Zorionak eta eskerrrik asko egindakoagatik.
- **Andoni Etxezarreta** (@andoetxe): Zorionak Aiurri.
- **Guarana** (@urkoarana): Andoaindarrok dugun komunikabide zabalena, gertukoena eta fidagarriena zaretalako. Zorionak!!
- **Lambretwit** (@lambretwit): Berria non, @Aiurri han. Zorionak 10 urte bete dituzuelako. Ezinbestekoak zarete.
- **Mari Jose Izaguirre** (@Marijoiza): Zorionak @aiurri hamar urte hauetan lortutako hedapena-

- **gatik**. Etxe eta txoko askoetara iristen zarete informazioa helaraziz. Jarraitu horrela!!!
- **EAJ Andoain** (@EAJ_Andoain): Hamar urtez txioka... Zorionak @aiurri eta jarrai aurrerantzean ere herriko bazter guztietara tokiko informazioa zabaltzen!
- **Manex Lete** (@manexlete): Aste honetan bete dira 10 urte @aiurri twitterren dagoenetik. Tokiko komunikabideen lana eskertu eta goraiatzeko aukera paregabea. Zorionak!
- **Neide Garmendia** (@neigar_): Tokiko hedabideak funtsezkoak direla uste dugunontzat, lan ederra, beste hamarren bila!
- **Jon Zulueta** (@jonzulu_): Zorionak @aiurri 10. urteurren honengatik. Tokiko informazioan ezinbesteko erreferentzia da gaur egun aiurri, eta twitterreko kontua da horren adibide.
- **Imanol F.** (@MeteoAndoain): Zorionak @Aiurri !!Hamar urte bete ditu Aiurrik, Zorionak herriko albisteak emateagatik.
- **Andoaingoliburuetgia** (@andolibu): Zorionak Aiurri.
- **AinaRZ** (@Aina_rodriguez): Informazio lokala, ziurra, eta batez ere, euskaraz! 10 urte Twitterren, eta beste horrenbeste bidean. Bejondeizuela!
- **Gorka Julio** (@teketen): Tokiko hedabideak, bide guztiak erabiliz herritarrei gertu beti. Hiplokalak izatea, unibertsal izatea da. Aupa @Aiurri.
- **Gustavo Marques** (@gusgake): Zorionak!!

TOKIKOM Wikiproiektua aurkezpen ekitaldia

Euskal Wikilarien Kultur Elkarte,
 TOKIKOM toki komunikabideen bateragunea
 eta Aiurri hedabidearen
 "TOKIKOM Wikiproiektua" ren egitasmoaren aurkezpena

OTSAILAK 26, ASTEAZKENA
19:00 Andoaingo Udal Artxiboa



Deitzaileak:

TOKIKOM



AIURRI

Laguntzaileak:

